



Berdintasun Zerbitzua		Getxoko Udala
Gaia: BERDINTASUN KONTSEILUAREN BILERA		

Bilerari buruzko datuak:

Eguna: 2014-02-19 Tokia: Santa Klara Jauregia Ordua: 17.00-18.15

Bertaratuak:

Bilgune Feminista: Uxune Iriondo.

Enclave de ciudadanas por Getxo: Charo De la Peña.

Eskuz-Esku: Isabel Perez.

Gizatiar: Begoña Fernandez, Marisa Pedrero.

Getxo Enpresa: Julia Dulce.

ELA: Elvira Lemona.

Udaleko alderdi sozialista: Ines Becares.

Bildu: Arantza Gutierrez.

EAJ-PNV: Elena Coria.

Lehendakaria: Keltse Eiguren.

Idazkaria: Idoia Eizmendi.

Ez dira bertaratu:

Mujeres con Voz

Alderdi popularra.

Gai-zerrenda

- Aurreko akta onartzea.
- Martxoaren 8ko kanpaina.
- III. Berdintasun Planeko 2013ko ekintzen segimendua.
- Galde-eskeak.

Gai-zerrendako gaiak lantzen hasi aurretik, nork bere burua aurkeztu du, Getxo Enpresako ordezkotitularrak lehenbizikoz parte hartu baitu Kontseiluan.

Aurreko akta onartzea

Aurreko bilerako akta onartu egin dute.

Martxoaren 8ko kanpaina.

Hasteko, Berdintasuneko teknikariak Emakumeen Nazioarteko Egunerako antolatutako jardueraz hitz egin du, eta azaldu du mahai-inguruan aldaketa bat egin behar izan dutela, El Salvadorreko Colectiva Feminista erakundeak ezin duelako parte hartu.

Berdintasuneko zinegotziak esan du mahai-inguruari buruzko xehetasun batzuk eman nahi dituela. Azaldu du Bizkaiko Medicus Mundi erakundeko ordezkariak sexu- eta ugaltze-eskubideen (SUE) gainean hitz egingo duela eta abortatzeko eskubidearen aldeko plataforma legearen erreformaren kontra dagoela. Horregatik, zinegotziak uste du kontrako iritzia duen elkarteren bat gonbidatzeak eztabaida aberastuko lukeela. Esan du, baita ere, Berdintasuneko teknikaria ez dagoela ideia horrekin ados, muturreko iritzia dituztenek aurrez aurreko eztabaida antzuak izan ditzaketelako. Gauzak horrela, ez daki egokia den gonbidatzea, ezta eztabaida aberastuko duen ere, eta horregatik ekarri du gaia bilerara.

Eskuz esku ados dago, eztabaida aberastuko lukeela irizten diolako.

Bilgune Feministaren iritziz, muturreko iritziek ez dute eztabaida aberastuko.

Rodaren ustez, jendeak jarrera desberdinen berri izatea eta iritzia azaltzea interesgarria da.

PSEren ordezkariaren iritziz, legearen testuan sakontzeak du interesa, ez gonbit hori eginez gero sor daitekeen eztabaida hori planteatzeak.

Gizatiarren aburuz, informatzeko hitzaldia egitearen proposamenari eutsi beharko liokete, jarrera oso desberdinak aurrez aurre jartzeak liskarrak besterik ez dituelako eragiten.

Berdintasuneko teknikariak ez du ulertzen zergatik eman behar zaien hitza bizitzaren alde daudela esaten duten elkarteei, ez dutelako bizitza defenditzen, emakumeen eskubideak murriztea baizik. Azaroaren 25erako ez da proposatu tratu txarren edo emakumeek gezurrezko salaketak jartzearen alde dagoenik gonbidatzea; beraz, mahai-inguru honetara ez dago erreformaren alde dagoen jendea ekarri beharrik. Adierazi du Berdintasuneko Agenteen Elkarteak jagoletza partekatuari buruzko eztabaida bat antolatu zutela eta bi aldeko gonbidatuak eraman zituzten+la; gonbidatuek kontrako jarrerak zeuzkatenez, eztabaidan ez zuten aurrera egin. Esan du, gainera, abortatzeko eskubidearen aldeko plataformako kide dela eta berak ez lukeela baldintza horietan inolako mahai-ingurutan parte hartuko.

Berdintasuneko zinegotziak PSEri galdetu dio legearen testua sakontzeko proposamen horri jarraiki oraingo legearen aldekorik gonbidatuko beharko luketen.

PSEk erantzun dio ez dela ezinbestekoa, nahikoa dela norbaitek lege hori zertan den eta erreforma-proposamenak zer ondorio ekarriko dituen azaltzea.

EAJko ordezkariak azaldu du Eudelek tokiko administrazioen erreformari buruzko jardunaldi bat antolatu zuela, lege berriaren berri emate aldera, eta, oso interesgarria izan zen arren, hizlari guztiak erreformaren kontra zeudenez, Udaleko teknikariek legearen alde onei buruzko hitzaldiren baten falta sumatu zutela. Gainera, mahai-ingurua denez, uste du jarrera desberdinen ikuspegiak jaso beharko liratekeela. Horren harian, bi hizlari bakarrik badaude, ez litzaioke mahai-inguru esan behar, hitzaldi baizik.

Berdintasuneko teknikariak uste du, baita ere, bi pertsona bakarrik egongo direnez, mahai-ingurua beharrean hitzaldia izango dela adieraztea. Mahai-inguruen ezaugarriei dagokienez, bere ustez ez dira behar jarrera desberdinak dauzkaten pertsonak, baizik gai bereko alderdi desberdinak landu ditzaketen hizlariak, nahiz eta kontrako ikuspegiak ez izan.

Rodak azpimarratu du jarrera desberdinak dituzten hizlariak beren iritziak ematea eta bertaratuek beren ondorioak ateratzea interesgarria dela.

ELAren iritziak, legea aldatzearen alde daudenek emakumeen eskubideak mugatzearen alde daude, eta uste du Berdintasun Kontseiluak ez lituzkeela mahai-ingurura gonbidatu behar.

Eskuz eskuren ordezkariak uste du Getxon erreformaren kontra zein alde jende asko dagoela eta, beraz, bi alderdietako ordezkariak gonbidatu beharko liratekeela. Berdintasuneko teknikaria ez dator bat planteamendu horrekin. Getxon jende asko kulturarteko bizikidetasunaren kontra dagoen arren, Udalaren lana ez da haiei hitza ematea, sentsibilizazio-lana egitea baizik.

Bildurentzat ez da iritzi kontu hutsa. Legea bultzatzen dutenek ez dute iritzi baten alde egiten, aitzitik: haien irizpidea inposatzen dute eta abortatu nahi duten emakumeak haurdunaldiari eustera behartzen dituzte. Abortatzeko eskubidea defenditzen duenek, aldiz, ez dute inor abortatzera behartzen.

Berdintasuneko zinegotziak gogoratu du Medicus Mundik SUEei buruzko informazio orokorra emango duela eta abortatzeko eskubidearen aldeko plataforma legearen erreformaren kontra arituko dela. Horregatik galdetu du foroa publikoa izanda zergatik emango duten ikuspegi bakarra. Hala ere, aitortu du eztabaida ongi moderatuta ere zaila izan daitekeela liskarrik ez sortzea. Gaia polemikoa dela uste du eta horregatik ekarri du Kontseilura. Azkenik, esan du ez lukeela tratu txarrak ematen dituen inor gonbidatuko, tratu txarrak delitu direlako.

Bilgune Feministako ordezkariak esan du bizitzeko eskubidea defenditzen dutenek badauzkatela borrokan aritzeko beren foroak, ez dagoela zertan haiei leku gehiago

eskaini behar. Azkenean mahai-inguruan parte hartzen badute, ez omen da joango, eguneroko bizitzan nahikoa eztabaida dauzkalako.

Berdintasuneko zinegotziak nabarmendu du mahai-inguruak ez duela jarrera baten aldekoa bakarrik izan beharrik.

Gizatiarren iritziz ez du erreformaren aldekoa edo kontrakoa izan behar, legearen eta erreformaren inguruko informazioa ematea dela gakoa.

PSEk elkarteei galdetu die nola ikusten duten informazioaren beharra eta zein den elkarteko emakumeen jarrera.

Eskuz eskuko ordezkariak erantzun dio 900 emakume ingururekin lan egiten dutela eta denetik dagoela: batzuk oso aurrerakoiak dira eta beste batzuk, berriz, oso kontserbadoreak. Esan du, baita ere, eliza katolikoan eztabaida ugari dauzkatela, emakume batzuk abortatzeko eskubidea defenditzen dutelako. Alde horretatik, nabarmendu du gauza bat dela elizaren ageriko burua eta bestea oinarrietako jendea.

Bilgune Feministak adierazi du Udalean erreforma geldiaraztearen aldeko mozioak bozkatu direla, bata kontinuitate eta bestea aurrerakoiagoa, baina jarrera hartua dagoela. Azaldu du, halaber, bi ikuspegiak eman behar izanez gero, bi hitzaldi desberdin egingo lituzkeela, ez lukeela istilurik antolatutako, jendea suminduta dagoelako. Hala eta guztiz ere, uste du ez diegula hitzaldirik antolatu behar, hori lana eginda ematea delako.

Enclavek adierazi du duela egun batzuk zineforuma antolatu zutela eta 50eko hamarkadan Ingalaterran egiten zituzten abortu klandestinoei buruzko "El secreto de Vera Drake" filma eman zutela. Saiatu ziren gaia ahalik eta modu aseptikoenean jorratzen, inor ez mintze aldera, nahiz eta, azkenean, bertaratutako den-denak erabakitzeko eskubidearen alde zeuden.

Gizatiarreko beste ordezkari batek adierazi du erreformaren aldeko hitza ematearen kontra zegoela hasieratik, baina gainerakoek esan behar zutena entzutea erabaki duela, bere iritzia eman aurretik. Esandako guztia entzun ondoren, iritzi dio eztabaidak ez lukeela ezer berririk ekarriko eta, gainera, Kontseiluan gehiengoa erabakitzeko eskubidearen alde dagoenez, ez dela egokia.

Berdintasuneko zinegotziak esan du talde eta elkarte gehienek jarrera zein den ikusita, hizlariak dauden horretan utziko direla eta mahai-inguruari hitzaldi izena emango zaiola.

Jakinarazi du, gainera, Eudelek aurten ez duela manifestu instituzionalik proposatu, eta udalerriei nork bere adierazpena egiteko gonbit egin die, nahi izanez gero. Horregatik, galdetu du egokia iruditzen al zaien adierazpen instituzionala egitea

eta, aurrekoetan bezala, Bozeramaileen Batzordeak onartu eta, gero, Udalbatzari aurkeztea.

Inork ez du hitzik hartu eta, beraz, Bozeramaileen Batzordeak berak hartuko du erabakia eta, baiezkoa izanez gero, zehaztuko du adierazpena.

Berdintasuneko zinegotziak jakinarazi du, baita ere, Eudelek udalerrien jardueren publizitatea egingo duela eta informazioa bidaliko dela¹.

III. Berdintasun Planeko 2013ko ekintzen segimendua

Berdintasuneko zinegotziak gogoratu du aurreko bileran Planeko ekintza batzuk berrikusi zituztela eta erabaki zutela gai berriren bat planteatu nahi izanez gero bilera honetan aurkeztea.

Enclavek adierazi du ekintza batzuk dauzkala jorratzeko.

- Diru-laguntzei buruzko NO4.2 ekintzari dagokionez, jakin nahi du zein diren *Dordoka* eta *Moviéndote por la integración*, eta zer proiektu gauzatzeko jaso dituzten diru-laguntzak.

Berdintasuneko zinegotziak deialdiko bi diru-laguntza ildoak (elkar-teena eta proiektuena) zertan diren azaldu du, eta jakinarazi du kasu honetan proiektu jakin baterako diru-laguntzak jaso dituztela.

Berdintasuneko teknikariak esan du *Dordoka* Getxoko Antzerki Eskolari lotutako elkarte bat dela eta gazteen indarkeria sexista prebenitzeko programa bat aurkeztu duela. Helburua da gazteekin antzerkiaren eta musikaren bitartez esku hartzea. *Moviéndote por la integración* elkarteak ere gazteen indarkeria sexista prebenitzeko proiektu bat aurkeztu du, *Getxo Iguala +*, Europako hainbat herrialdeetako jardunbide egokiak biltzen dituen blog bat, hain zuzen ere².

- JdA3.1. *Alargun eta pentsiodunen elkarteei diru-laguntzak ematea, hala eskatzen badute*. Jakin ahi dute elkarteei zer informazio eman zaien, diru-laguntza eska dezaten. Berdintasun Zerbitzuak jakinarazi du udalerrian dagoeneko ez dagoela alargunen elkarterik.

- KI1.1. *Festa-batzordeak jaietan indarkeriarik ez izateko lanean inplikatzeari*. Enclavek galdetu du batzordeetara nola hel daitezkeen eta gai horren inguruan zer egin den. Berdintasuneko teknikariak erantzun dio iaz batzordeekin bildu zela baina ez zela elkarlanean ezer egin.

Dena den, aurten ere jarri da harremanetan batzordeekin, kanpainaz hitz egiteko edo lankidetzaren proposamenen bat egiteko. Berdintasuneko zinegotziak esan du

¹ Gero Eudelekin hitz egin dugu eta argitu digute adierazpen instituzionalak zabalduko dituztela, ez udalerrien jarduerak.

² Proiektua web orri honetan dago: <http://www.moviendote.org/getxo-igualas-plus-experiencias-para-la-prevencion-de-la-violencia-juvenil/>

urtero jaiez arduratzen den udal-sailak urtero kanpainaren berri ematen diela eta elkarrekin lan egitea proposatzen dietela.

- JdI1.1 ekintzari, hau da, *tratu txarrak jasotzen dituzten emakumeentzako harrera-etxe bat martxan jartzeari* dagokionez (EAEko Zerbitzuen Katalogoan jasoa badago, betiere), egoera zein den jakin nahi dute. Berdintasuneko teknikariak adierazi du segimendu-dokumentua bidali zuela baina, oporraldia dela-eta, oraindik ez duela Gizarte Zerbitzuen erantzunik jaso. Teknikariak ez zuen bizitokiaren berri eta horregatik jarri zuen ez dagoela. Dena den, puntu hori Planaren segimenduan zuzendu zen eta, ez duela bidali ikusita, barkamena eskatu du.

EAJko ordezkariak (Gizarte Zerbitzuetako zinegotzia da) jakinarazi du *tratu txarrak jasotzen dituzten emakumeentzako harrera-etxe bat* jarri zutela martxan duela urtebete. Berdintasuneko teknikariak zehaztu du gizarte-larrialdietarako etxe bat dela, ez *tratu txarrak jasotzen dituzten emakumeentzako* bakarrik. Gizarte Zerbitzuetako zinegotziak berretsi du beste era bateko larrialdietarako ere erabil daitekeela, noizean behin, baina helburua dela indarkeriaren biktima diren emakumeentzako izatea; zorionez, oraindik ez dute erabili beharrik izan.

- EnA1.3. *Getxolaneko programa eta zerbitzu guztietan lehentasuna ematea 44 urtetik gorako emakumeei, karga familiarrei inoren laguntzarik gabe aurre egin behar dituen emakumeei eta gizarteratzeko eta lan-munduan sartzeko zailtasunak dauzkaten emakumeen kolektibo*ei. Ekintza horri dagokionez, Planaren segimendu-dokumentuak dio "ez dagokiola", Getxolanek dagoeneko ez dituela zerbitzu horiek eskaintzen, eta Enclavek jakin nahi du gai horrekin zer gertatzen den. Berdintasuneko zinegotziak erantzun dio enpleguaren arloko eskumenak zehazten dituen erreforma dela-eta, Getxolanek bere eskumenekoak ez diren jarduerak egiteari utzi ziola.

GALDE-ESKEAK

- ELAk galdetu du Udaltzaingoak jaietan sexu-indarkeria prebenitzeko plan berezirik ba al daukan. Berdintasuneko zinegotziak erantzun dio Erakundearteko Tokiko Protokolo bat dagoela eta Udaltzaingoak ere parte hartzen duela. Protokolo horretan sexu-indarkeriako kasuetan, ez festetan bakarrik, nola jokatu behar den dago bildua. Protokoloa etxean *tratu txarrak jasotzen dituzten eta sexu-indarkeriaren biktima diren emakumeen arreta hobetzeko erakundearteko II. akordioko* parametroen arabera eginga dago.

- Bilgune Feministak jakinarazi du Romoko Emakumeen Asanbladak manifestazio deituko duela martxoaren 8rako; manifestazioa 13.00etan egingo dute, Santa

Eugenian. Bilgunek ere manifestazioa deituko du egun bererako: 19.30ean bilduko dira, Telletxen.

- Gizatiarrek martxoaren 8a dela-eta antolatu dituen jardueren berri eman du: 6an Toti Martinez de Lezea idazlearen hitzaldia eta 27an "Ezezkoa ematearen ondorioak emakumeentzat". Bi hitzaldiak Romoko San Jose parrokiako tokiko ekitaldietarako aretoan emango dituzte, 18.15ean. Sarrera doakoa izango da.

HURRENGO BILERA: APIRILAK 10, ASTEAZKENA, 17.00ETAN SANTA KLARAN.